



## “Mundua hegietarik begiztatzea ez da hain gaizki”

Itxaro Borda

Idazle handia, batere ironia arrastorik gabe.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Gaizka Iroz

**Emazte, iparreko, emaberekundekoi; eta hala ere euskal literaturaren kanonean.**

Arras planttako izateko tatxa guztiak biltzen ditut, erdi sekretuan atxikitzen ditudanez gain: ameslaria, *décroissant* ideietakoa, bling bling... Euskal literaturaren kanonean sartzen dira adin kanonikoko emazteak eta adin horretara heltzen ari naiz.

**Pentsatzen nuen kanona obra literarioek ezarzen zutela.**

Obra literarioek jendartearen erraiak larrutzen dituen minarekiko balizko interpretazioak proposatzen dituzte. Kanona, aldiz, merkatuak bideratzeko eta asetzeko baliabidea da. Kanonarekin edo kanonaren arabera ezin dut idatzi.

**Ez eta politikoki korrektu: politika aldetik bazter, sexu aldetik bazter...**

Oraindik bazter... Hargatik laster, ez baldin bada jada, bazter boz eta gai horiek jorratuko dira euskaraz deblauki eta molde anitzez. Noka zoragarria erabiliz. Beldurretik urrun, hizkuntzari pentsamenduaren biribilkatzeko askatasuna zor diogu.

**Zuk asko idatzi izan duzu; gehiegi batzuen ustean.**

Beti horrela da! Gustatzen zait idaztea, egunero, erraten denaz axolatu gabe. Gainera ez naiz ahalke eta ez dut damurik. Sortzen ditudan pertsonaiekiko elkartasuna hobes-

ten dut. Idaztea niretzat bizitzea da, eta *vice-versa*.

**Ez duzu denbora askorik hartzen emakume normal lanetan.**

Funtsean ba al da emakume normal lanik? Emakume normalik? Minimo sindikala segurtatzen dut. Maite dut salda bioenergetikoak kozinatzea eta garbiketa egiten dut eri kartzelatua naizenean.

**Eta, hartara, ez zaude bost magnifikoaren artean.**

Ez nago magnifikoetarik bat izateko, idazteko eta irakurleei behin-behineko plazera emateko baino poesia, artikulua eta nobelekin.

**Proposamena luzatuko dugu: hurrengo edizioan jainkotuak izan daitezela sei.**

Jainkotua izateak ez du interesik. Euskal Herrian hereneguneko elizetan bezala gizonak galeria goretan dira eta emazteak behe-rean kopetak apal, bereiz, nahastea gohai, moral sailduaren izenean.

**Baina ondo legoke, oso postmoderno: bazterreko dena, erdigunearen erdi-erdian.**

Ondo legoke agian, baina antza herri honetan hausnarketaren balio erantsia gizezkoen esku-tik datorkigu eta beharbada hori da postmodernoena. Emazteen erdigunea berriz sukalde eta ohea date. Aitortzen dut mundua hegietarik begiztatzea ez dela hain gaizki. ■

